

ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK



Diskriminazioa eta diskriminazioaren aurkako politika publikoak Euskal Autonomia Erkidegoan

EKAINA, 2023

ararteko

Herriaren Defendatzailea
Defensoría del Pueblo



Lan hau [Creative Commons Aitortu 4.0 Nazioartekoa \(CC BY 4.0\) lizentziapean dago](#)



Arartekoaren argitalpenak eskuratzeko

- [web](#) gunean
- [posta elektronikoz](#) eskatuz
- aurrez aurre gure hiru bulegoetako batean, idatziz (Prado 9, 01005 Vitoria-Gasteiz) edo telefonoz (945 13 51 18)

ARARTEKO

Itzulpena: Hori Hori S.A.L.



ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Kapitulu honetan, hizpide dugun gizarte-problematikaren hainbat alderdiri egindako analisi luzetik ateratako ondorio nagusiak jasotzen dira.

Maila arautzaile eta egiturazkoan neurri sakonak hartzeko balio dezakete ondorio eta gomendio hauek, eta diskriminazioari edo arrazakeriari babes ematen dieten diskurtsoak edo egoerak desagerraraztea dute helburu¹.

Zerbaitengatik, Tratu Berdintasunerako eta Diskriminaziorik Ezerako uztailaren 12ko 15/2022 Lege Integral berriak tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko eskubidea aitortu du, eta diskriminazioaren aurkako borrokan eskumena duten botere eta administrazio publikoek eskubide hori garatu behar dute.

ONDORIOAK

VII.1. GIZARTE- ETA ARAU-TESTUINGURUA

- 1. Diskriminazio- eta desberdinkeria-egoerek bere horretan jarraitzen dutenez, neurri eta jarduketa berriak abiatu beharko dira tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko eskubidea babestu dadin.**

Azterlanean aipatu ditugun azterlanek eta ikerketek (batzuk Euskadin egindakoak dira) azpimarratu egiten dute Europan, Espainiako Estatuan eta Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) gertakari diskriminatzaileak daudela oraindik ere eta testuinguru, egitura eta diskurtso batzuek betikotu egiten dutela diskriminazioak giza talde jakin batzuetan duen inpaktua.

¹ Arrazarik ez dagoelako premisatik abiatu gara, arrazaren kontzeptuak ez duelako definitzen aniztasun genetiko bat. Arrazakeriaren terminoa erabiltzen da, identitate jakin batzuk kolorean, erlijioan edo etnian oinarrituta dauden eta tratu diskriminatzailea jasotzen duten ezaugarrien araberrako estereotipoetara mugatzen dituzten eraikuntza sozialak definitzeko (adibidez, ijitoak, musulmanak, beltzak edo juduak). Arrazakeriaren barruan, kolorearengatik edo etnia-jatorriarengatik edota hizkuntzagatik, erlijioagatik nahiz nazionalitateagatik pertsonen edo taldeen kontra egiten diren ekin-tza guztiak sartzen dira. Azken aldian, pertsona arrazializatuaren terminoa zabaldu da, eraikuntza sozial horren arabera egotzitako kategorian oinarrituta tratu diskriminatzaile bat jasotzen duen pertsona izendatzeko.



- 2. Arrazakeriaren eta diskriminazioaren aurkako borrokan, diskriminazioaren aurkako zuzenbidea txertatu behar zaie politika publikoei, modu iraunkorrean txertatu ere, giza duintasuna kaltetu ez dadin eta jarduketa diskriminatzaile edo arrazistak prebenitu ditzagun, baita pertsonak jarduketa arrazistetik babestu ere.**

Diskriminaziorik ez jasateko eskubideak botere publikoei egiten die dei, eta politika publikoak garatzera derrigortzen du, jarduketa mota horiek mahai gainera ateratzen dituzten egiturazko diskriminazioari eta desberdinkeriarri aurre egiteko. Gainera, etengabeko bilakaeran dagoen eskubide berria denez, gizartearen bilakaera kontuan hartuz berrikusi behar dira babes-neurriak. Beraz, diskriminazio-modu berriei egoki eta azkar erantzuteko egitura egonkorrak proposatu behar dira, baldin eta aurre egin nahi badiogu, gizartearen aniztasunaren berezko edozein arrazoiren ondorioz, edozein desberdintasun kondenatzen duen kontzientzia sozialari. Giza aniztasun horren barruan, honako ezaugarri hauek topa ditzakegu, eta guzti-guztiak babestu behar ditugu: aniztasun funtzionala, sexua, etnia-jatorria, erlijioa, sinesmena edo iritzia, sexu-joera edo -identitatea, hizkuntza edo bestelako edozein kondizio edo egoera pertsonal. Horrekin batera, zaurgarritasun-egoera jakin batzuk daude, babestu beharrekoak horiek ere (adibidez, egoera sozioekonomikoa, adina edo osasun mentala), ezaugarri eta egoera berezi batzuk biltzen dituzten pertsona jakin batzuk diskriminazioen xede izan ez daitezen.

- 3. XXI. mendean, mundu-mailan, gora egin dute askotariko arrazoiek eragindako lekualdaketek, eta, hortaz, auzokide berrien premiei erantzuteko politika publikoak sortu behar izan dira.**

Horrek, eskubideen titulartasunean eta erabileran eragiteaz gainera, aniztasuna hobeto ulertzea eta gehiago aitortzea eragin du, argi uztearekin batera aniztasuna kudeatu egin behar dela.

Integrazio-prozesu aurreratuko testuinguruetan aniztasuna kudeatzeko, aintzat hartu behar dira zenbait praktika (esate baterako, kulturarteko harmonizazioari buruzkoak), egoera eta jarduketa diskriminatzaileak saihesteko.



4. Araudian bertan zeharkako diskriminazioa existitzen dela aitortzeak agerian jartzen du gure gizartean diskriminazioa sistemikoa dela.

Diskriminazioa sistemikoa da gizarte batean, jokabide diskriminatzailea oso trinko instituzionalizatuta dagoenean eta, beraz, pertsonen jokabide sustraitu batean oinarrituta jarduten dutenean. Horren ondorioz, aintzat hartu behar ditugu konturatzen ez bagara ere praktika diskriminatzaileen oinarrian dauden elementu jakin batzuk, eta argi dago pertsonen arteko benetako berdintasuna galarazten duten oztopoak irauli behar ditugula.

5. Partikularren arteko harremanetan, diskriminaziorik ez izateko eskubidea bete dadila eska daiteke; horrenbestez, eskubidearen irismenari eta eskubidea urratzearen ondorioei buruzko neurriak ezarri behar dira.

Harreman pribatuetan diskriminatzeko debekuak pertsona, elkarte, enpresa eta bestelako antolakunde guztiei eragiten die; hots, gizarteari eragiten dio, oro har. Pertsona fisikoek, beren harreman pribatuetan, ez dute berdintasun materiala zertan sustatu, ezta berdintasun hori benetakoa izatea galarazten duten oztopoak kendu behar ere, baina diskriminaziorik ez izateko eskubidea errespetatu behar dute. Hori dela-eta, administrazio publikoek berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko eskubidea ez urratzeko ekintzak sustatu behar dituzte, eta eskubidearen edukiaren inguruan nahiz eskubidea ez betetzearen ondorioen inguruan kontzientziatzeke neurriak hartu.

6. Giza eskubideen nazioarteko zuzenbideak eta Europar Batasuneko zuzenbideak urteak daramatzate tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko eskubidea babesteko araudi bat sustatzen. Halaber, askotariko tresna arautzaile ugari daude diskriminazioa debekatzen dutenak, eta nazioarteko erakunde askoren jurisprudentziak, irizpenek eta ebazpenek sendotasun juridikoa ematen diote diskriminazioaren aurkako zuzenbideari.

Nazioartean, eskubideak aitortzen dituen eta diskriminazioa debekatzen, gorroto-diskurtsoa kondenatzen eta arrazakeria zigortzen duen arau-corpus zabala dago. Gainera, arauko tresna eta nazioarteko erakunde asko daude arauok betetzen direla zaintzeko. Estatuak giza eskubideei buruzko itunak, hitzarmenak eta tratatuak sinatzen dituztenean, botere publikoei betebeharrak ezartzen zaizkie, arauok barruko ordenamendu juridikoaren zati izatera igarotzen baitira. Hala, agintaritzak publiko



guztiek errespetatu behar dituzte nazioarteko betebeharrak, eta ondo betetzen direla zaindu, bakoitzak bere eskumen-eremuan. Era berean, arauzko testuen eta nazioarteko jurisprudentziaren arteko lotura etengabea da.

Bestetik, nabarmendu beharra dugu jurisdikzio-bidean diskriminazio bat badela aitortzen denean kasuistika zabala hartzen dela kontuan; beraz, diskriminazio hori jurisprudentzian islatzen denean, diskriminazioaren aurkako zuzenbidearen irismenaren berri izan dezakegu.

7. 15/2022 Lege berriak babes-eremuak zabaldu ditu, eta betebeharrak ezarri dizkie administrazio publikoei. Hortaz, tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko eskubideak, legitimazio soziala ez ezik, arauen eta jurisprudentziaren babesa ere badauka barruko eta nazioarteko zuzenbidean.

Europako araudian jasotako sei diskriminazio-arrazoiez gainera (sexua, arraza- edo etnia-jatorria, desgaitasuna, adina, erlijioa edo sinesmenak eta sexu-joera), lege berriak arrazoi gehiago ezarri eta zehaztu ditu, eta Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua amaietan dagoen klausula irekiari eutsi dio. Legea Espainiako Estatuan aplikatu daiteke, bertan daudenen administrazio-egoera edozein izanik ere. Sektore publikoan nahiz pribatuan, honako eremu hauetan: enplegua, hezkuntza, osasuna, garraioa, kultura, herritarren segurtasuna, justizia-administrazioa, gizarte-babesa, ondasunen eta zerbitzuen eskaintza eta hornikuntza, jendeari irekitako establezimendu edo tokietarako sarbidea eta egonaldia, bide publikoaren erabilera eta egonaldia, publizitatea, komunikabideak eta informazioaren gizarteko zerbitzuak, Internet, kirol-jarduerak eta adimen artifiziala.

Era berean, Estatuko edo autonomia-erkidegoko araudian ezarritako araubide espezifiko mesedegarriagoi kalterik egin gabe aplikatuko da.

Giza eskubideen arloan aplikatu daitezkeen nazioarteko tresnak eta nazioarteko jurisprudentzia kontuan hartuta interpretatu behar da. Berriaz ezartzen du, gainera, nazioarteko erakunde multilateralek eta eskualdeetako erakundeek ematen dituzten gomendioak eta ebazpenak aintzat hartu behar direla, eraginkortasun handiagoz babestu daitezkeen jokabide diskriminatzaileen edo intoleranteen eraginpean dauden pertsonak eta taldeak.



8. Giza eskubideen eremuko nazioarteko gainbegiratze-erakundeek txostenak garrantzitsuak dira diskriminazioaren eta arrazakeriaren aurkako borrokan aurrera egiteko.

Europako eta nazioarteko erakundeek zenbait txosten egin dituzte, Espainiak giza eskubideei buruzko nazioarteko hitzarmenak eta tratatuak (sinatu dituenak) nola betetzen dituen gainbegiratzeko; izan ere, hitzarmenok botere publikoak lotzen dituzte.

Txosten horiek 15/2022 Legea indarrean jarri aurretik idatzi dituzte (2022ko uztailan onetsi zuten Legea). Ondorioz, hurrengo txostenetan, nazioarteko erakundeek lege horren edukia aztertuko dute, eta berori betetzeko abiatzen diren politika publikoak ebaluatuko. Europako eta nazioarteko erakundeek diskriminazioaren kontra borrokan orain arte hauteman dituzten gabezia nagusien zati bat lege berriari esker konpondu da. Gabezien artean, honako hauek aipa ditzakegu: diskriminazioaren aurkako legedi orokorrik ez egotea eta diskriminazioaren aurkako arloan erakunde independente eta egoki horniturik ez egotea.

Beste gabezia batzuk (ikus azterlan honen III. kapitulua) lege-esparru berriaren garapenaren eta ezarpenaren arabera ebaluatu beharko dira, eta honako gai hauek ukitzen dituzte, besteak beste: gutxiengoak ordezkatzeko dituzten aholkularitza-organoen diseinua eta funtzionamendua, berdintasunari eta diskriminazioari buruzko datuen bilketa eta analisisa eta diskriminazioaren aurka borrokatzeko estrategietan eta planetan egiten diren datu-bilketak, politika publikoek talde gutxituetan edo talde diskriminatuetan izan ditzaketan neurritz kanpoko inpaktu kaltegarrien azterlanik eza, segurtasun-indarren eta -kidegoen jarduketetan profil etnikoak erabiltzea, eskola-segregazioa eta gertakari arrazisten jazarpenean nahiz gorroto-diskurtsoaren aurkako borrokan dauden gabeziak.

VII.2. EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN TRATU-BERDINTASUNAREN ETA DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO POLITIKA PUBLIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

9. Euskal administrazio publikoek jarduketa asko abiatu dituzte diskriminazioa jasaten duten kolektiboek premiei erantzuteko eta aniztasuna kudeatzeko. Beraz, aldeko abiapuntua dugu, tratu-berdintasunaren eta diskriminazio ezaren arloko jarduketak indartzeko.



Euskal legegintzak kolektibo jakin batzuk diskriminaziotik babesteko burutu dituen egitasmo batzuek eta, oro har, euskal administrazioek eremu honetan abiatu dituzten askotariko neurri eta ekintzek testuinguru ona sortu dute Euskadin, berdintasunean eta diskriminazio ezan aurrera egiteko, politika eta egitura propioak esparru juridiko berrira egokituz (15/2022 Legea eta tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako egingo den euskal lege integrala).

14/2012 Legea, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa, zeina ekainaren 27ko 19/2019 Legearen bidez aldatu baita, aurrerapen handia izan zen diskriminazioaren aurkako borrokan, transexualen kondizio edo inguruabar pertsonal nahiz sozialen ondoriozko diskriminazioari dagokionez. Halaber, 2023an, hausnarketa-, prestaketa- eta eztabaida-saioak egiten ari dira, tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako egingo den euskal lege integrala irudikatzen hasteko.

Kontsultatu ditugun euskal administrazio publikoek Arartekoari bidalitako erantzunak aztertu ditugu (ikusi azterlan honen IV. kapitulua), eta egiaztatu ahal izan dugu aniztasunaren harrera, inklusioa eta kudeaketa biltzen dituzten jarduketa ugari daudela eta beste batzuek, nahiz eta, berez, diskriminazioaren aurka borrokatzeko izan ez, borroka horretan zuzenean eragiten dutela.

Giza Eskubideen, Biktimen eta Aniztasunaren Zuzendaritza sortu da Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egituraren, eta Aniztasunerako Euskal Agenda egin da. Bada, aurrerapen garrantzitsuak dira biak, eta Euskadin tratu-berdintasuna sustatzeko eta diskriminazioari aurre egiteko proposamenak burutzeko aukera ematen dute.

Bestetik, zerbitzu batzuek (Berdinduk eta Eraberean sareak, adibidez) urteak darrazate salaketak jasotzen eta diskriminazioa pairatzen duten pertsonak artatu eta orientatzen. Halaber, Biltzen zerbitzua aipatu behar dugu, aniztasuna kudeatzen duelako eta diskriminazioaren, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko tresnak eta baliabideak sortzen dituelako.

Horri, diskriminazioa nozitzen duten kolektiboei babesa eta laguntza emateko jarduketak egiten dituzten elkarten lana gaineratu behar diogu.

Ondoriozta dezakegunez, Euskadin aldeko egoera dugu neurri berriak sustatzeko. Dagoeneko, badaude arrazakeriaren eta diskriminazioaren aurka borrokatzeko eta eremu honi buruzko ezagutza eta sentsibilitatea hedatzeko egitasmoak eta jarduke-



tak, baita estereotipoen eta zurrumurrueen aurkako estrategiak ere (zurrumurrueen aurkako estrategia eta Zas! sarea). Gainera, erakundeen adierazpenek, sentsibilizazio- eta salaketa-ekintzek, berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko prestakuntza-ekintza espezifikoez edota diskriminazioaren aurkako baliabideen gidek eta gorroto-gertakari arrazisten, xenofoboaren, antigitanoen eta LGBTIfobikoen kasuetan aplikatzeko protokoloek esparru propioa sortzen dute.

10. Euskal administrazio publikoek ikuspegi konprometitu eta aurreratua daukate berdintasunaren, aniztasunaren kudeaketa inklusiboaren eta diskriminazioaren aurkako borrokaren eremuan. Halere, giza eskubideen errespetuan oinarritutako ikuspegia indartu beharko litzateke²; bereziki, tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari dagokienez.

Laguntza-eskaerari emandako erantzunen bidez, Arartekoak ikusi ahal izan du euskal administrazio publikoek gizarte-inklusiari bide emateko, euskal gizartean dauden askotariko aniztasunak kudeatzeko eta estereotipoei, zurrumurruei eta jokabide xenofoboari aurre egiteko esku-hartzeak egiten dituztela.

Zentzu horretan, azterlan honetan bildu ditugun jarduketek argi erakusten dute euskal erakundeek ahalegin handia egiten dutela eta sentikortasun egokia dutela diskriminazioa jasan dezaketen kolektiboaren premiei erantzuteko orduan. Bestetik, azterlana egiten hasi ginenetik, administrazio batzuk berdintasuna sustatzeko eta diskriminazioaren aurka borrokatzeko neurri berriak sartu dituzte plangintza-tresnen eguneraketan: beharrezko bidea da hori, bereizketarik egin gabe pertsona guztien giza eskubideekiko errespetuan aurrera egiteko.

² Nazio Batuek honela definitzen dute giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia: "Gizakion garapen-prozesurako esparru kontzeptual bat da, zeina, ikuspegi arautzailetik abiatuta, giza eskubideei buruzko nazioarteko arauetan oinarritzen baita eta, ikuspegi operatibotik abiatuta, giza eskubideak sustatu eta babesteari bideratuta baitago. Garapenaren arazoaren erdigunean dauden desberdinkeriak aztertzea du helburu, bai eta garapenari aurrera egitea galarazten dioten praktika diskriminatzaileak eta botere-banaketa bidegabeak zuzentzea ere. [...] Giza eskubideetan oinarritutako ikuspegiarekin, nazioarteko zuzenbideak ezarritako eskubide eta betebeharrak korrelatiboaren sistema batean iltzatzen dira garapen-planak, -politikak eta -prozesuak. Horrela, garapen-lana jasangarria izan dadin laguntzen da, eta pertsonak ahalduntzen dira (bereziki, baztertuenak), politiken formulazioan parte har dezaten eta erantzukizunak eska diezazkieten jarduteko betebeharrak dutenei". [hitzez hitzeko aipamena ingelesezetik itzuli da].

GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO NAZIO BATUEN GOI KOMISARIOAREN BULEGOA, *Frequently asked questions on a human rights-based approach to development cooperation*, New York eta Geneva, Nazio Batuek, 2006, 15. or., hemen eskuragarri: <https://www.ohchr.org/sites/default/files/Documents/Publications/FAQen.pdf>.

Giza eskubideetan oinarritutako ikuspegiak hainbat dimentsio biltzen ditu; zehazki, giza eskubideen, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren, parte-hartzearen, legezketasunaren, kontu-ematearen eta gardentasunaren zeharkakotasuna.



Nolanahi ere, erantzunak aztertu ondoren, Arartekoak balioetsi du tartea dagoela giza eskubideen ikuspegiari pisu handiagoa emateko moduaren inguruko hausnarketak sakontzeko; hau da, euskal administrazio publikoek, tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko kontuak jorratzen dituztenean, pisu handiagoa eman diezaiokeite ikuspegi horri. Beraz, giza eskubideen arloko betebeharrak txertatu beharko zaizkie kudeaketa publikoari eta plangintza-tresnei, eta aurrera egin beharko da giza eskubideen hirien arloan, Oinarrizko Eskubideen Europako Agentziak (FRA) proposatu moduan³. Horretarako, Nazio Batuek eta Europako Kontseiluak proposatu dituzten giza eskubideen estandarrak garatzeko konpromiso irmoa behar da, eta haiek sustatutako programetan eta sareetan parte hartu, EBk proposatutako planak eta estrategiak (azterlanean aipaturikoak) betetzearekin batera. Euskadin giza eskubideen kultura sustatzeko orduan aurrera egiten jarraitzeko, ezinbestekoa da neurriak sustatu eta ebaluatzea eta guztiaren berri ematea gainbegiratzearaz arduratzen diren Europako eta nazioarteko batzorde eta erakundeei.

Hausnarketan, zer-nolako sail-egitura behar den pentsatu beharko litzateke, eta egitura horrek eskumena eduki beharko luke tratu-berdintasunerako eta diskriminazio ezerako eskubidea babesteko programak, egitasmoak eta jarduketak sustatzeko eta ekimenon eraginkortasuna aldizka ebaluatzeko, aintzat hartuta gaia zeharkakoa dela.

VII.3. AUTONOMIA-ERKIDEGOKO ARAU-ESPARRUAREN EGOKITZAPENA

11. Garrantzitsua da tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko eskubidea babesteko lege-esparru autonomiko propio eta egokia edukitzea.

Azterlan honetan, azpimarratu egin dugu oso garrantzitsua dela kolektiboek eta pertsonak hainbat arrazoiengatik eta askotariko egoeretan jasaten duten diskriminazioari aurre egiteko babes juridikoa egotea. Beraz, ezinbestekoa da berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako borrokaren arloan esparru propioa edukitzea.

Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak aurreikusituen, tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako euskal lege integrala egingo da, eta lege horren helburu nagusiak izan beharko luke erregulazio-esparru

³ FRA, *Human Rights cities in the EU: a framework for reinforcing rights locally*, Europar Batasunaren Argitalpen Bulegoa, Luxenburgo, 2021. Bertan, Bilbo eta Bartzelona aipatzen dira; lehena, balio-kartagatik, eta bigarrena, garatzen dituen hainbat programarengatik (diskriminaziorik ez izateko bulegoa, adibidez). Eskuragarri hemen: <https://data.europa.eu/doi/10.2811/908860>.



orokor bat ezartzea, tratu-berdintasunerako eskubidea, giza duintasunarekiko errespetua eta edozein diskriminazioaren aurreko babesa bermatu daitezzen Euskadin. Erregulazio horrek kontuan hartu beharko lituzke 15/2022 Legearen azken xedapenetatik 8.a eta 3. artikulua.

Bere eskumenen eta konstituzionaltasun-blokearen barruan, tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko eskubidea bermatzeko behar diren elementu giltzariak ezarriko dituen lege bat aurreikusi du. Mota horretako legediak zeharkakoak dira, eta, beraz, Euskadiko araudi sektorialean islatuko dira, baita administrazio publikoen jarduketetan eta EAEn bizi diren herritarren bizitzan ere.

Araudi propioak argitasun handiagoz mugatuko du zehapen-eremua, arau-haustekak eta zigor eraginkorrak zehaztuz, EAEko politika publikoetan tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko eskubidea zeharka proiektatuz eta jardun-eremuak mugatuz, ekintza positiboak abian jartzea aurreikusiz eta berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko eskubidea betetzen dela zainduko duen berdintasunerako erakunde bat sortuz.

12. Araudi sektoriala egin, berrikusi eta ebaluatzea, tratu-berdintasunari eta diskriminazio ezari dagokionez, corpus juridiko koherente bat sortzeko.

Esparru orokor bat ezarriko duen legedi autonomiko propio bat eduki ahal izateko nahiari kalterik egin gabe, beste lege edo arau sektorial batzuk eman edo, hala egokituz gero, berrikusi beharko lirateke; adibidez, aldaketak egingo dira Euskadiko Gurtza Toki eta Zentroei eta Erljio Aniztasunari buruzko Legearen eta izapidetzen ari den Euskadiko Jarduera Fisikoari eta Kirolari buruzko Legearen proiektuetan, eta bigarren aldiz aldatuko da Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legea, Aniztasunean berdintasuna egoteari eta sexu-joeran oinarritutako diskriminazioaren aurkako borrokari buruzko Lege Integralaren bidez, zeina legegintzaldi honetako gobernu-programan baitago⁴.

Bestalde, diskriminazioaren aurkako lege-esparru bat eratu ondoren, indarreko araudia berrikusi beharko litzateke, diskriminazioaren aurkako parametroak (legena hiz araudi-mailakoak) sartzeko, baita barruko zirkularrak berrikusi ere, tratu-berdintasunerako eta babestutako edozein arrazoitan oinarritutako diskriminaziorik

⁴ Azterlan hau egiteko amaierako fasean, 4/2023 Legea onetsi da, otsailaren 28koa, transexualen berdintasun erreal eta eraginkorrekota eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzekoa, eta eragin handia izango du kolektibo horren eskubideetan.



ez izateko eskubidea ukatzea, mugatzea edo murriztea ahalbidetu dezakeen edozein erregulazio ken dadin. Era berean, interesgarria litzateke ekintza positiboko neurriak aurreikustea, pertsona batzuek diskriminazioaren xede diren kolektiboetakoak izateagatik dauzkaten desabantaila-egoerak konpentsatzeko helburuz.

Amaitzeko, oso tresna interesgarria litzateke diskriminazioaren aurkako araudiaren eraginkortasuna aldizka ebaluatzea, lege-aldaketak eta politika publikoak orientatzeari begira.

VII.4. POLITIKA PUBLIKOAK KOORDINATU ETA PLANIFIKATZEKO EGITURAZKO NEURRIAK

13. Euskadin berdintasunerako erakunde independente bat sortzea, diskriminazioaren aurkako Europako araudiak eskatzen dituen eginkizunak betetzeko baliabide nahikoz hornitua, eta erakunde hori gainerako erakundeen artean kokatzea.

EBren zuzentarauei esker, tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko hainbat erakunde abiatu dira Europan, oso eredu desberdinak dauzkatenak eginkizunei, independentziari, finantzazioari, sarbideari eta abarri dagokienez.

Mota horretako erakunde batek Euskadiko agintaritzen jardun-esparruan egin leza ke lan, eta, beraz, egokia da baloratzea ea Euskadin berdintasunerako erakunde bat abiatzeko aukerarik dagoen, Europako eredu desberdinak eta azterlan honetako ebaluazioak eta gomendioak aintzat hartuta⁵.

⁵ Europako Batzordearen proposamen bat, berdintasunerako erakundeen estandarrei buruzkoa, interesgarria da, aurreikuspen komun eta lotesleak ezartzen baitira bertan, berdintasunerako erakundeak eraginkorragoak, independenteagoak eta irisgarriagoak izan daitezten. EUROPAKO BATZORDEA, Kontseiluaren zuzentarau-proposamena, berdintasunerako erakundeetarako arauari buruzkoa, eremu hauei dagokienez: tratu-berdintasuna, arraza- edo etnia-jatorria edozein izanda ere; tratu-berdintasuna, enplegu- eta okupazio-gaietan, erlijioa edo sinesmenak, desgaitasun-egoera, adina edo sexu-joera edozein izanda ere, eta emakumeen eta gizonen tratu-berdintasuna, gizarte-segurantzaren eta ondasunen, zerbitzuak eta haien hornikuntza eskuratzeko orduan. Honen bidez, 2000/43/EE Zuzentarauaren 13. artikulua eta 2004/113/EE Zuzentarauaren 12. artikulua ezabatzen dira, COM(2022) 689 final, Brusela, 2022-12-07, eskuragarri hemen: <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=CELEX%3A52022PC0689&qid=1677072337793>. EUROPAKO BATZORDEA, Batzordeko zerbitzuek egindako lan-dokumentu analitikoak, Kontseiluaren Zuzentarau Proposamenaren dokumentuekin batera doana. Zuzentarau Proposamena erakundeetan berdintasuna honako esparru hauetan sustatzeko araudiari buruzkoa da: pertsonen arteko tratu-berdintasuna, arraza edo jatorri etnikoa edozein dela ere; enpleguaren eta okupazioaren esparruko tratu-berdintasuna, pertsonen erlijioa edo sinesmenak, desgaitasuna, adina edota sexu-orientazioa edozein direla ere; emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasuna, gizarte-segurantzaren esparruan eta ondasunen eta zerbitzuak eskuratzeko eta hornitzeko esparruan. Proposamenaren bidez, halaber, 2000/43/CE Zuzentarauaren 13. artikulua eta



Horrelako erakunde bat martxan jartzeko, erakundea botere legegileari eta exekutiboari dagokienez independentea izango dela bermatuko duen eta erakundeari nor-tasun juridiko propioa emango dion lege bat eman behar da. Diskriminazio-arrazoi guztiak jorratzeko erakunde bakarra egon liteke, edo erakunde espezifikoak sortu, diskriminazio-arrazoi bakoitzeko.

Esku hartzeko bi tipologia daude. Lehenik eta behin, orokorra dugu, aholku ematekoa eta “soft law” eremuan (hau da, proposamenen eremuan, eta ez ezarpenekoan) txostenak, irizpenak eta gomendioak idaztekoa. Eta, bigarrenik, zehatzailea.

Azterlan honen arabera, horrelako erakunde bat eratzeko eredu eta aukera asko daude, esleitu dakizkiokeen eginkizunei, jardun-eremuari eta ezaugarri nagusiei dagokienez, eta, eraketa zabal batean, ikertzeko eta zehatzeko ahala eduki dezake, edo, eraketa mugatu batean, biktimari arauari eta eskubideei buruzko informazioa ematekoa.

Beste aukera bat litzateke bitartekaritza bat sustatzea edo lehengoratzeko zirkuluetara jotzea, edota diskriminazioaren biktimari zuzenean laguntzea, auzibide estrategikoko kasuetan.

Halaber, aintzat hartu behar dugu EAEn eginkizun horiek bete ditzaketen zerbitzuak garatu direla azken urteotan; hortaz, hori guzti hori hartu beharko genuke aintzat, eraginkortasuneko eta efizientziako irizpideetan oinarrituta balorazio orokorra egiteko orduan, eta erakunde horrek Euskadiko erakundearen artean izango lituzkeen kopurua eta eskumen-irismena zehaztu.

14. Lehengoratzeko-ikuspegia sartzea Euskadiko politika publikoetan, tratu berdintasunaren eta diskriminazio ezaren arloan

Desberdinkeriak prebenitzeko eta berdintasun-politikak eraikitzeko eginkizunen artean, lehengoratzeko-ikuspegia txertatzeko aukera dago, bai aurreko ondorioan aipatutako erakunde independenteari esleitutako misioan, bai jokabide diskriminatzaileak prebenitzeko eta horien aurrean babestu eta erreparatzeko neurrietan.

2004/113/CE Zuzentarauaren 12. artikulua ezabatzen dira. Horrez gain, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Zuzentarau Proposamena ere jaso da, erakundeetan enplegu- eta okupazio-gaietan emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna sustatzeko araudiari buruzkoa, zeinaren bidez ezabatzen baitira 2006/54/CE Zuzentarauaren 20. artikulua eta 2010/41/UE Zuzentarauaren 11. artikulua, SWD(2022) 386 final, Brusela, 2022-12-07, eskuragarri hemen en: <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/EN/TXT/?uri=CELEX%3A52022SC0386&qid=1670963336357>.



Zigor- edo zehapen-bidea bazter utzi gabe, berdintasunerako erakundeak lehengoratzeko-ikuspegia izan lezake. Horrela, diskriminazio-eremu bakoitzean, biktimak, biktinarioak eta komunitateko ordezkariak bil ditzake, gatazkak tratatzeko sistemak egiteko eta, gertakari zehatz bat gertatzen denean, sistema horietara jotzeko. Lehengoratzeko-metodologiara jotzeko, aurretik biktimaren baimena jaso behar da.

Diskriminazioaren eremuan gatazkak tratatzeko sistema mota horiek eraikita, komunitateko ordezkariak erreparazio-prozesura lot daitezke, eta diskriminazio mota bakoitzari egokitutako *ad hoc* metodologiak garatu. Halaber, bestelako lehengoratzeko-praktikak txerta litezke; adibidez, bitartekaritza, zirkuluak eta hitzaldiak.

Horrela, berdintasunerako erakunde independenteek bizikidetzaren gune demokratiko positiboak sor litzakete, gizarte-kohesiorako eta berdintasunerako prebentzio-elementuak sartuz. Bestetik, erantzun propio, baketsu eta eraikitzailea eman liezaitezke pertsona zehatzek jasandako diskriminazio bidegabearen ondoriozko gatazkei, zigor- eta zehapen-eremuko erantzun exogeno eta erreaktiboaz bestelakoa.

15. Maila anitzeko koordinazioa Estatutako Administrazio Orokorrekin eta Euskadiko administrazio publikoen artean

EBk sustatzen dituen esparru estrategikoetatik eratorritako betebeharrak betetzeko, maila anitzeko koordinazio-egitura behar da.

Botere publiko guztiei dagokie tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko eskubidea babestu eta sustatzea, eta harreman publiko eta pribatu guztiei eragiten die. Hori dela-eta, eskubidea betetzeko, lankidetzaren aktiboa eta koordinazio sistematikoa izan behar dira administrazio publiko guztien artean. Bestalde, pertsona guztiek dute eskubidea jatorria, erlijioa, administrazio-egoera edo bestelako edozein inguruabar pertsonal edo sozial edozein izanda ere diskriminaziorik gabeko tratua jasotzeko.

Ezinbestekoa da Estatutako Administrazio Orokorrekin plangintza-tresnak eta parte hartzekoak koordinatzea, konferentzia sektorialaren barruan edo beste organo batzuetan (hala nola, Gorroto Delituen aurka Borrokatzeko Bulego Nazionalan), eta 15/2022 Legea betetzeari begirako akordioetan parte hartzea. Pertsonen duintasuna errespetatzea eta Espainiako Konstituzioaren 9.2, 10. eta 14. artikuluetako aurreikuspenak gauzatzea da helburua. Zentzu horretan, 15/2022 Legearen 35. artikulua eskatzen du lankidetzaren egon dadila Estatutako Administrazio Orokorren eta



autonomia-erkidegoen artean, baita toki-erakundeekin ere, nor bere eskumen-eremuan arituz. Halaber, segurtasun-indarren eta -kidegoen eta beste erakunde publiko eta pribatu batzuen artean koordinatzeko mekanismoak hobetzea du xede Gorroto Delituen aurka Borrokatzeko II. Ekintza Planak⁶.

Biktimei arreta emateko zerbitzuen arteko koordinazioak, hortaz, lehentasuna izan beharko luke, arretaren eraginkortasuna eta efikazia hobetu daitezzen eta gorroto-delituen eta diskriminazioen biktimei errazago eman dakizkien aholkua eta informazioa, bikoizketak saihestearekin batera.

16. Plangintza-tresnak eta diskriminazioaren aurkako estrategiak egitea, jarraipena eta ebaluazioa egiteko adierazleak aurreikusita.

Diskriminazioaren aurka borrokatzeko estrategiek eta planek arauzko aurreikuspenak mugatzea ahalbidetuko duten ekintza zehatzak antolatu behar dituzte.

Eremu honetan, euskal administrazio publikoen jardunak ekintza planifikatu bati eta agente publiko eta sozialak bilduko dituen ekintza-programa bati erantzun behar die, eta edozein jokabide diskriminatzaile saihesteko edota edozein jokabide diskriminatzaile erantzuteko jarduketa iraunkorrak aurreikusi.

EAEEn, tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari eragiten dieten planak eta estrategiak garatu dira; hala nola, Ijito-herriarekiko Euskal Estrategia⁷, Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko Plana⁸ eta desgaitasunari eta irisgarritasunaren sustapenari buruzko zenbait plan dauzkagu.

Ildo berean, tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko euskal estrategia bat atontzeko aukera baloratu beharko litzateke, askotariko eremuetan ekintza espezifikoak antolatuko lituzkeena. Estrategia horrek, halaber, adostutako neurrien ebaluazio independente bat jaso beharko luke, neurrien eraginkortasuna ezagutzeko.

⁶ BARNE-MINISTERIOKO SEGURTASUNEN ESTATU-IDAIZKARITZA, *II Plan de acción de lucha contra los delitos de odio 2022-2024*, op. cit.

⁷ EUSKO JAURLARITZAREN BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE-POLITIKETAKO SAILA, *Ijito-herriarekiko 2022-2026ko Euskal Estrategia...*, op. cit.

⁸ EUSKO JAURLARITZAREN BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE-POLITIKETAKO SAILA, *Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. 2022-2025eko Plana*, op. cit.



17. Poliziak pertsonak identifikatzeari, informazioaren tratamenduari, arrazadelituen kontrako borrokari eta gertakari arrazistak gainbegiratzeari buruzko neurri espezifikoak hartzea.

Nazioarteko erakundeek ohartarazi dute profil etnikoetan oinarritutako identifikazio-kontrolek ondorioak izaten dituztela; hau da, segurtasun-indarrek, justifikazio objektibo eta arrazoizkorik gabe, arrazan, kolorean, hizkuntzan, erlijioan, nazionalitatean eta nazio- nahiz etnia-jatorrian oinarritutako kontrol-, zaintza- edo ikerketajarduerak gauzatzen dituzte, eta horrek ondorioak izaten ditu⁹.

Herriaren Defendatzaileak eta Arartekoak¹⁰ salatu dute praktika horiek existitzen direla, eta praktikok gainbegiratu, prebenitu eta kontrolatzeko gomendioak eman dituzte. Beste neurri batzuen artean, galdeketa guztiak erregistratzea gomendatu dute, edota sistematikoki berrikustea beren kontra profil etnikoak erabili izana salatzeko aurkezten diren kexa guztiak. Datu kuantitatibo eta kualitatiboak aldizka berrikusita, jarduketa ezegokiak detektatu daitezke, eta polizia-jarduketetan diskriminazioa eta arrazakeria prebenitu.

Azkenik, gogorarazi egin behar dugu Arartekoak berariaz gomendatu zuela polizia-kidegoek jokabide-kode espezifikoak edukitzea¹¹, informazio horren tratamenduari buruzkoak, eremu honetan jokabide diskriminatzaileak edo arrazistak gertatzea, errepikatzea eta betikotzea saihesteko.

⁹ Besteak beste, ARRAZAKERIAREN ETA INTOLERANTZIAREN AURKAKO EUROPAKO BATZORDEA (ECRI), Politika Orokorrari buruzko 11. Gomendioa eta ARRAZA-BEREIZKERIA MOTA GUZTIAK EZABATZEKO BATZORDEA (ABEB) 36. Gomendio Orokorra (2020), ordenaren agenteek arraza-profilak egitea prebenitzeari eta horren kontra borrokatzeari buruzkoa, 2020ko abenduaren 17koa, CERD/C/GC/36, hemen eskuragarri: <https://digitallibrary.un.org/record/3897913?ln=es>.
ECRIk, 2021eko txostenean, azterlan baten ondorioak gogorarazi zituen. Azterlanean, Europar Afrikako ondorengoen aurka ezartzen diren arrazismoaren eta arraza-diskriminazioaren aurkako borroka aztertu zuen, eta azpimarratu zuen neurri espezifikoak behar direla dimentsio estruktural, instituzional eta interseksionala dituen afrofobiaren kontra borrokatzeko; ECRI, *Annual report on ECRI's activities, 2021 January to 31 December*, Europako Kontseilua, Estrasburgo, 2022, hemen eskuragarri: <https://rm.coe.int/ecri-2021-annual-report-24052021-en/1680a6a6d3>.
ECRI, *Combating racism and racial discrimination against people of African descent in Europe: Round-table with human rights defenders organised by the Office of the Council of Europe Commissioner for Human Rights: online event, 24 November 2020: report*, hemen eskuragarri: <https://rm.coe.int/combating-racism-and-racial-discrimination-against-people-of-african-d/1680a1c0b6>.

¹⁰ Kontu hau berariaz aztertu genuen hemen: ARARTEKOA, 7/2011 Gomendio Orokorra, urriaren 28koa: Poliziaren jarduera eta praktiketako berme sistema, eta hemen: ARARTEKOA, 2014R-25-14 Ebazpena, 2014ko abenduaren 10ekoa. Honen bidez, Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailari gomendatzen zaio neurriak hartzea Ertzaintzan arraza profilen garapena prebenitzeko eta kontrolatzeko.

¹¹ ARARTEKOA, Euskal autonomia-erkidegoko administrazio publikoen menpeko polizia-kidegoek jokaera-kodeak erabili behar dituzte immigrazioari buruz ematen duten informazioaren tratamendurako, op. cit.



18. Hezkuntza-arloko araudian aurreikusita dauden neurriek ezinbesteko eginkizuna dute tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko eskubidearekin begirunetsua izango den gizarte bat lortzeko

Hezkuntza oso garrantzitsua da arrazakeriari eta diskriminazioari aurre egiteko; bezaraz, hezkuntzak erdigunean egon behar du diskriminazioaren kontrako politika eraginkorretan, etorkizuneko belaunaldietan dituzten ondorioengatik. Hori dela-eta, askotariko neurriak hartu beharko genituzke kontuan, eta, horien artean, inor diskriminatuko ez den eskola inklusiboa lortzearekin lotutako asko daude.

Eskola jakin batzuetan, ikasle migratzaile, ijito edo maila sozioekonomiko baxuko asko pilatzen dira¹², nahiz eta hezkuntzako agintariak fenomeno horri erantzuteko ahaleginak egin eta proposamen ugari egon. Ikasle behartsuak pilatzeak absentismo-indizeak altuak izatea eta emaitza akademikoak txarrak izatea eragin dezake.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoaren bidez aldatu ondoren, onarpen-arauak aplikatzean berdintasuna bermatzeko neurri zehatzak jasotzen ditu¹³. 15/2022 Legeak¹⁴ ere ildo bereko neurri bereziak garatzea aurreikusten du.

Euskadiko hezkuntza-administrazioak, eskola inklusiboaren eremuan, urteak darabmatza gizarte- eta hezkuntza-zaurgarritasuneko egoeran dauden ikasleak pilatzen dituzten zentroein laguntzeko programak garatzen. Gainera, bizikidetza-programak abiatu ditu, tratu ona sustatzeko eta eskola-jazarpena jorratzeko¹⁵. Eusko Legebiltzarrak 2022ko apirilaren 7an onetsitako Hezkuntza Itunean, besteren artean, eskola-segregazioa jorratzea aurreikusten da; izan ere, erronka handia da, oraindik ere, hezkuntza-zentroetan ikasleak modu orekatuan banatzea eta emaitza akademikoak hobetzea. Tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko eskubidea baliatu dadin, oso interesgarria da arrakasta akademikoa eta bizikidetza bermatzeko eta eskola-segregazioari aurre egiteko neurriak aurreikusi eta abiatzea.

¹² Arartekoak eskola baten kasua aztertu zuen: ARARTEKOA, Arartekoaren 2019R-597-19 Ebazpena, 2019ko azaroaren 6koa. Honen bidez, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailari gomendatzen zaio ebalua dezala Ordiziako haur eta lehen hezkuntzan funts publikoak jasotzen dituzten ikastetxeetan 2019-2020 ikasturterako jada onartu diren plangintza-erabakiek zer eragin izan dezaketen, eta neurri zuzentzaileak har ditzala ikastetxe horien artean eskolatutako ikasleak banatzean oreka handiagoa sustatzen laguntzeko.

¹³ Ikusi 30., 81., 84., 86. eta 87. artikulua.

¹⁴ Ikusi 13. eta 14. artikulua.

¹⁵ Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko 2022-2025eko Planak, programazio-neurrien artean, autonomia-erkidegoko, udaletako eta foru-aldundietako teknikariek osatutako lantalde bat sortzea proposatu du, hausnartu dezan udalerrimailan zer-nolako ondorioak izan ditzakeen eskola batean jatorri eta/edo arbaso atzerritarreko ikasleak pilatzeak.



19. Diskriminazioa jasaten duten kolektiboek etxebizitza eskuratzeko izaten dituzten zailtasunak eta bizitegi-segregaziorako arriskua

Etxebizitza bat edukitzea ezinbesteko baldintza da beste eskubide eta askatasun asko (bereziki, eskubide sozialak) baliatzeko. Etxebizitza eskuratzen laguntzeko eta sektore pribatuan diskriminazioari aurre egiteko neurriak, beraz, erabakigarriak dira pertsonen bilakaera sozial eta garapen egokiak izan ditzaten eta bizitza duina izan dezaten.

Kolektibo jakin batzuetako pertsonen ezin izaten dute etxebizitzarik alokatu, ezta lanagatik diru-sarrerak dauzkatenean edo prestazio ekonomikoen titularrak direnean ere, eta egoera horrek haurrei eta nerabeei eragiten die bereziki.

15/2022 Legeak tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko eskubidea etxebizitzaren arloan ere aplikatzea aurreikusten du. Administrazio publikoek tratu-berdintasunerako eta bizitegi-segregazioa ez jasateko eskubidearekin begirunetsuak izango diren hirigintza- eta etxebizitza-politikak diseinatu behar dituzte. Lege horretan, oso aintzat hartzen dira zaurgarritasun-egoeran dauden etxegabeen edo etxebizitza bat eskuratu eta erabiltzeko orduan diskriminazioa jasan dezaketen pertsonen premiak. Halaber, adinekoen, desgaitasunen bat dutenen eta osasun-patologia edo -nahasmendu larriak edo ezgaitzaileak edukitzeko arriskuan dauden edo horretarako joera duten pertsonen autonomia eta bizitza independentea bermatzeari begirako politikak sustatu behar direla xedatzen du.

Etxebizitzaren araudian eta plangintza-tresnetan tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko eskubidea txertatzean, kontuan hartu beharko lirateke 15/2022 Legeak finkatu dituen parametroak eta etorkizuneko euskal araudiak eremu honetan ezartzen dituenak. Garapen-araudiak eta EAEko Etxebizitzari buruzko Plan Gidariak diskriminazioaren aurkako xedapenak jaso beharko lituzkete, honako hauei aplikatzeko: etxebizitza publikoaren hornitzaileak, salmenta- eta errentamendu-zerbitzuen hornitzaileak, higiezin bitartekaritza-erakundeak, iragarkien atarietakoak eta etxebizitzak jendaurrean eskaintzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak.

VII.5. EREMU SOZIAL ETA KOMUNITARIOA

20. Diskriminazioaren eraginpeko kolektiboen inguruko antolakunde sozialek eta aholkularitza-erakundeek berdintasunaren sustapenean eta diskriminazioaren aurkako borrokan parte hartzea.



Antolakunde sozialak beharrezko laguntzaileak dira diskriminazioaren aurka borrokatzeko politikak eta programak formulatu, aplikatu eta ebaluatzeko orduan. Kolektibo diskriminatuetako kideek parte hartu beharko lukete kontsultarako erakunde eta batzordeetan, politikei eta programei buruzko elkarrizketa publikoari eta horien ebaluazioari laguntzeko.

Euskadin, elkarrizketa zibilean ibilbide luzea egina duten hainbat kontsulta-kontseilu parte-hartzaile daude¹⁶, eta, lege-esparru berrian, kontuan hartu beharko lirateke. Kontsultarako kontseilu horien jardunean, tratu-berdintasunaren sustapenak eta diskriminazioaren kontrako borrokek garrantzi handia izan behar dute.

21. Gorroto-diskurtsoari aurre egiteko neurriak.

“Gorroto-diskurtso” deritzonak gero eta arreta handiagoa bereganatzen du, diskriminazioa jasaten dutenen bizitzari, osotasunari, duintasunari eta eskubideei eragiten dieten jokabide diskriminatzaileen jatorria izaten delako. Estereotipoek, aurreiritziek eta zurrumurruek, askotan, gorroto-diskurtsoak izaten dituzte oinarri. Komunikabideek zeregin handia betetzen dute iruditeria kolektiboa eraikitzeko orduan. Batzuetan, kontu arazotsu, partzial eta estigmatizatzaileen inguruan biltzen dute informazioa, eta kolektibo zaugarrietako kideei egozten dizkiete abusuzko edo delituzko jarduketa zehatz batzuk. Horrek ondorio katalizatzaile ezkorra izaten du iritzi publikoan eta sare sozialetan; batez ere, diskurtso publikoari eragiten diotenean. Ondorioz, jokabide diskriminatzaile, sektario eta baztertzatzaileak elikatzen dituzten iritziak legitimatzen dira.

Internetek eskaintzen dituen aukerek asko areagotu dute diskurtso mota horien oihartzuna; beraz, berdintasunaren sustapenaren erronka handienetako bat da adierazpen-askatasunerako oinarrizko eskubidea egoki mugatzea, muga legal eta etikoa ezarri eta, aldi berean, hedabideetan eta sare sozialetan zabaltzen diren eduki eta balorazio diskriminatzaileak auzitan jarriko dituen pentsamendu kritikoa sustatuz.

Lineako plataformetako hornitzaile batzuek legez kanpoko edukiak ezabatzeko aurrerapenak egin badituzte ere, modu boluntarioan gainera, ahalegin etengabea egin

¹⁶ Besteak beste: Euskal Autonomia Erkidegoko herritar etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroa, elkarrizketa zibilerako mahaiak, Euskal Autonomia Erkidegoko ijito herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako kontseilua, ADOS batzordea (Euskadiko komunitate islamiarrekiko bizikidetzaren sustatzea du helburu), eta Erljiorteko Euskal Kontseilua sortzea aurreikusi da.



behar da linean eduki bidegabeak erreproduzitzeko dauden aukeren bilakaera aztertzeko eta erantzun egokia emateko, edukion inpaktua eten edo desbideratze aldera.

Hori dela-eta, ikus-entzunezkoen kontseilu bat sor liteke, edota komunikabide sozialak, publizitatea, Internet, sare sozialak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak garatzen dituzten enpresak autoerregulatzeko akordioak sustatu, beste jarduketa posible batzuen artean.

Oraintxe bertan, Espainiak lineako legez kanpoko gorroto-diskurtsoari aurre egiteko protokolo bat dauka¹⁷, EBren Gomendioan oinarritua¹⁸, non erakundeetako eta antolakunde sozialetako ordezkariak eta datuak gordetzeko zerbitzuen hornitzaileek parte hartu baitute.

Dudarik gabe, oso zaila da gorroto-diskurtsoari erantzutea, eta ez zigor-irismena duelako bakarrik (delitua da), baita askotariko jarduketak biltzen dituelako ere, komunikabideak eta ikus-entzunezkoek parte hartzen dutelako eta askotan adierazpen-askatasunerako oinarritzko eskubidearekin talka egiten delako. Horrenbestez, jarduketak eta erantzunak bilduko dituen eta eman diren gomendioak aintzat hartuko dituen jarduketa-plan bat egitea eska daiteke.

Interesgarria litzateke, era berean, EAEko egoerara eta testuingurura egokitutako tresna, protokolo edo estrategia bat edukitzea.

VII.6. GERTAKARI DISKRIMINATZAILEEN EDO ARRAZISTEN BIKTIMEI EDO DISKRIMINAZIOA JASAN DEZAKETEN PERTSONEI ZUZENDUTAKO JARDUKETAK

22. Diskriminazioa jasan dezaketen pertsonen eta gertakari diskriminatzaileen edo arrazisten biktimei informazioa, aholkua eta bidelaguntza ematea.

EBren Biktimen Eskubideei buruzko Estrategiak (2020-2025)¹⁹ ekintza giltzarri batzuk proposatzen ditu, biktimen eskubideen babes hobe eta premia bereziak dauzkaten biktimak aintzat hartzeko helburuz. Biktimei aitortutako eskubideak bik-

¹⁷ BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA eta beste batzuk, *Protocolo para combatir el discurso de odio ilegal en línea...*, op. cit.

¹⁸ Batzordearen 2018/334 (EB) Gomendia, 2018ko martxoaren 1ekoa, legez kanpoko online edukiari modu eraginkorrean aurre egiteko neurri buruzkoa.

¹⁹ EUROPAKO BATZORDEA, *Estrategia de la UE sobre los derechos de las víctimas (2020-2025)*, op. cit.



timaren nazionalitatea edozein izanda ere aplika daitezke, legezko egoitza-baimena eduki zein ez²⁰.

Diskriminazioaren biktima errealek edo potentzialek, informazio egoki eta osoa ematen bazaie, ordenamendu juridikoak zer eskubide esleitzen dizkien eta eskubi-deak baliarazteko zer baliabide dauzkaten jakin dezakete²¹.

Gorroto Delituen aurka Borrokatzeko 2022-2024ko II. Ekintza Planak²², lehenengo ekintza-lerroan, gorroto-delituen biktimei eman beharreko laguntza eta babesa jasotzen ditu.

15/ 2022 Legeak, 5. artikuluan, informazio guztia modu ulergarrian jasotzeko eskubidea aitortzen die diskriminazioaren biktimei, baita haien egoera pertsonalari buruzko aholkularitza jasotzekoa ere, haien testuinguruaren, beharizanen eta gaitasunen arabera egokituta, administrazio publikoek dituzten zerbitzuen, erakundeen edo bulegoen bidez. Doako Laguntza Juridikoari buruzko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legearen 6. artikuluan ezartzen denaren antzeko aurreikuspena jasotzen du, artikululu horretan aipatzen diren kolektiboek dagokienez. Hori dela-eta, interesgarria litzateke araudi autonomikoa berrikustea (zehazki, Doako laguntza juridikoari buruzko urriaren 30eko 153/2018 Dekretua), 15/2022 Legearen lege-aurreikuspen berria txertatze aldera.

Oraintxe bertan, EAEn zenbait zerbitzuek ematen dituzte informazioa eta aholkularitza²³. Gainera, gorroto-gertakari arrazisten, xenofoboaren, antigitanoen eta LGBTIfobikoen aurrean tokian-tokian jarduteko gida²⁴ bat dago, beste gida batzuen artean²⁵, eta, gida horri esker, horrelako gertakarietan zer prozedura jarraitu behar den jakin dezakegu.

²⁰ 4/2015 Legea, apirilaren 27koa, Delituaren Biktimaren Estatutuari buruzkoa (BOE, 2015eko apirilaren 28koa, 101. zk.), hemen eskuragarri: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2015-4606>.

²¹ Ikusi ANDALUCÍA ACOGE, *Guía práctica para la aplicación del estatuto de la víctima*, eskuragarri hemen: <https://acoge.org/wp-content/uploads/2017/03/GuiaEstatutoVictima.pdf>.

²² BARNE-MINISTERIOKO SEGURTASUNEN ESTATU-IDAIZKARITZA, *II Plan de acción de lucha contra los delitos de odio 2022-2024*, op. cit.

²³ Eraberean sarea, Berdinu zerbitzua, arraza- edo etnia-diskriminazioaren biktimei laguntza eta orientazioa ematen dizkien ACCEM zerbitzua eta desgaitasunaren eremuan (fisiko-funtzionala, intelektuala...), osasun mentalaren eremuan edo haurren eremuan lan egiten duten antolakunde sozialek eskaintzen dituzten informazio- eta aholkularitza-zerbitzuak.

²⁴ EUSKO JAURLARITZAREN BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA, *Gorroto arrazista, xenofobo, antigitano eta LGBTIfobikoko gertakarien aurrean tokian-tokian jarduteko gida*, op. cit.

²⁵ Barne Ministerioaren Gorroto Delituen kontra Borrokatzeko Bulego Nazionalak jarduera onen gida bat argitaratu du gorroto-delituak salatzeko, eta jarduketara salatzeko orientazioa eta baliabideei bu-



Informazio- eta aholkularitza-zerbitzu ugari egoteak, hortaz, koordinatzeko eta lan-kidetzan aritzeko ahaleginak egitea eskatzen du.

Nolanahi ere, interesgarria litzateke informazio- eta aholkularitza-zerbitzuak nahiz prestazioak jasoko lituzkeen mapa bat edukitzea. Gabeziak hautematen, zerbitzuen eraginkortasuna eta efikazia hobetzen eta bikoiztasunak saihesten lagunduko luke horrek. Halaber, helburu berberarekin, interesgarria litzateke haurrei eta nerabeei informazioa emateko dauden zerbitzu espezifikoiei buruz hausnartzea.

23. Jarduketa eta jokabide diskriminatzaileen prebentzioa, babesa eta erreparazioa: neurri osagarriak.

Tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko eskubidearen erabilera beneratzen bermatzeko, neurri erreaktiboetatik (hala nola, salaketa judizialek edo administrazio-erreklamaziotik) harago joango den neurri-sorta handi bat aurreikusi behar da, egiturazko faktore batzuk ezin daitezkeelako eten erantzun penal edo zehatzaitzaileen bidez bakarrik.

Gainera, zerbitzu publikoetan tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko eskubidea urratu izanagatik salaketa guztiek ekarri behar dute barne-ikerketara eraginkor bat egitea eta ikerketa horren arabera beharrezkoak diren prebentzio-, erreparazio- edo diziplina-neurriak hartzea. Bestetik, 15/2022 Legearen 29. eta 31. artikuluek, beste neurri batzuen artean, jarduketa osagarriak aurreikusten dituzte, agintaritza publikoak diskriminazio-kasu baten berri duenerako.

Halaber, prebentzioko eta ekintza positiboko neurri espezifikoak behar dira berdintasuna praktikan berma dadin, talde edo pertsona jakin batzuek abiapuntuan dituzten desabantailak konpentsatuz. Neurriok arau-esparru egoki bat eduki beharko lukete. Hona hemen adibide bat: 193/2023 Errege Dekretua, apirilaren 20koa, ezgaitasunen bat duten pertsonak espazio publiko hirituetara eta eraikinetara sartu eta horiek erabiltzeko behar dituzten oinarriko irisgarritasun eta bereizkeria ezeko baldintzak onesten dituen²⁶.

ruzko informazioa ematen ditu (adibidez, Delituaren Biktimei Laguntzeko Bulegoei buruzkoa). BARNE MINISTERIOAREN GORROTO DELITUEN KONTRA BORROKATZEKO BULEGO NAZIONALA, *Guía de buenas prácticas para la denuncia de los delitos de odio*, Barne Ministerioa, Idazkari-tza Nagusi Teknikoa, Madril, 2020, hemen eskuragarri: <https://www.interior.gob.es/opencms/pdf/servicios-al-ciudadano/Delitos-de-odio/descargas/Guia-de-buenas-practicas-para-la-denuncia-de-los-delitos-de-odio.pdf>.

²⁶ 193/2023 Errege Dekretua, apirilaren 20koa, ezgaitasunen bat duten pertsonak espazio publiko hirituetara eta eraikinetara sartu eta horiek erabiltzeko behar dituzten oinarriko irisgarritasun eta



15/2022 Legeak ezartzen du neurri horiek hartu behar direla arrazoi babestuak daudenean; hots, tratu desberdina eman behar da, edozein diskriminazio edo desabantaila prebenitu, desagerrarazi eta, hala badagokio, konpentsatu dadin dimentsio kolektibo eta sozialean. Era berean, lege horrek balioesten duenez, tratu berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko eskubidea urratzen da, diskriminazio edo desabantaila bati aurre egiteko arauzko betebeharrak edo betebehar konbentzionalak betetzen ez direnean.

Erligio- eta kultura-aniztasuna kulturarteko harmonizazioaren, arrazoizko egokitzapenaren eta itundutako doikuntzaren bidez kudeatu behar da, gizartearen konplexutasunari eta aniztasunari erantzuteko eta zeharkako diskriminazioko edota bereizgabetasunaren ondoriozko diskriminazioko egoerak prebenitzeko.

Erreparazioa ere gatazkak konpontzeko bide judizialaz bestelako mekanismoen bidez gauzatu daiteke; adibidez, bitartekaritzaren eta kontziliazioaren bidez edo lehengoratzeko-zirkuluen bidez (ikusi 14. ondorioa).

VII.7. ERRONKA BERRIAK: ADIMEN ARTIFIZIALA

24. Adimen artifiziala: diskriminazioaren aurkako bermeak, erabakiak hartzeko mekanismo automatizatuetan.

Ezin dezakegu ukatu teknologiak sekulako ekarpena egin duela administrazio-erabakiak eraginkortasunez har daitezela. Halere, oso garrantzitsua da adimen artifizialak (lanak algoritmoen bidez automatizatzen dituen teknologia) talde batzuen (zehazki, talde zaugarrienen) kontrako jokabide diskriminatzaileei bide ez ematea. Eginkizun eta erabaki batzuk adimen artifizialeko sistemen esku uzteak arriskuak dakartzkie giza eskubideei, eta zaila da arriskuok bideratzea (behintzat, berehala), sistemen diseinuan eta funtzionamenduan berme jakin batzuk aurreikusi ezean.

Adimen artifizialak, gizakiok sortzen eta garatzen dugunez, gizartean dauden joerak izan ditzake. FRAk, "Algoritmoen joera: adimen artifiziala eta diskriminazioa" azterlanean²⁷, azaltzen du joerak sortzen direla, talde demografiko zehatzak bakarrik

bereizkeria ezeko baldintzak onesten dituen (BOE, 2023ko martxoaren 22koa, 69. zk), hemen eskuragarri: <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2023-7417>.

²⁷ FRAren ikerketak lehen aldiz jaso ditu adibide jakin batzuk, azaltzeko algoritmoetan joera nola sortzen den eta joera horrek norbanakoen bizitzan nola eragin dezakeen. Zehazki, polizia-ekintza prediktiboa aztertu zuen, non aurretiko joera bat denborarekin areagotu egiten baita eta, ondorioz, polizia-ekintza diskriminatzaileak sortu baitaitezke; halaber, etnia- eta genero-joera aztertu zuen diskurtso iraingarriak detektatzeko sistemetan. FRA, *Bias in Algorithms: Artificial Intelligence and*



islatzen dituzten datuekin edo gizartean nagusi diren joerak zuzenean islatzen dituzten datuekin elikatzen bada teknologia.

Mugetako kontroletan edo beste zerbitzu publiko batzuetan, eremu publikoko ekitaldien gainbegiraketan eta, oro har, herritarren segurtasunaren arloan datu biometrikoak, identifikazio biometrikoa eta bestelako ezagutze-sistema batzuk erabiltzailak arrisku handiak ekar ditzake, kontuan hartzekoak. Adimen artifiziala elikatzen eta orientatzen duten datuen joera diskriminatzaileen detekzioak eta zuzenketak, hortaz, garapen teknologikoari lagundu behar diote.

Adimen artifiziala modu etiko eta fidagarrian erabili behar da, bat etorrita oinarrizko eskubideekin, eta bermeak ezarri behar dira ezagutze-sistemetan tratu-berdintasunaren eta diskriminazio ezaren printzipioa urratu ez dadin; besteak beste, defentsarako, errugabetasun-presuntziorako, pentsamendu-askatasunerako, zirkulazio-askatasunerako, bilera baketsuetarako eta elkartzeko eskubideak bermatuz. FRAk iradoki moduan²⁸, algoritmoek eduki ditzaketan edo denborarekin garatu ditzaketan joerak identifikatu eta baztertu behar dira, edozein arrazoitan oinarritutako diskriminaziorik sor ez dadin.

Ondorioz, kontrol-neurri egokiak aurreikusiko dituen araudi bat sortu beharko litzaiteke, adimen artifizialeko sistemen ondorioak sistematikoki ebaluatuz, giza eskubideen arloan egon daitezkeen arriskuak identifikatu eta arindu ahal izateko; horretarako, besteak beste, gardentasuna ezinbesteko bihurtzen da aplikazio informatikoen diseinuan eta erabileran.

15/2022 Legearen 23. artikulua esaten duenez, administrazio publikoek mekanismo batzuk martxan jartzen lagunduko dute²⁹, administrazio publikoetan erabakiak hartzeko erabiltzen diren algoritmoek kontuan har ditzaten joerak murrizteko irizpideak, gardentasuna eta kontu-ematea, teknikoki egingarria bada. Mekanismo horietan, diseinua eta entrenamendu-datuak ere kontuan hartuko dira, eta inpaktu diskriminatzaile potentziala jorratuko da. Legeak honako hauek aipatzen ditu, erre-

Discrimination, Europar Batasunaren Argitalpen Bulegoa, Luxenburgo, 2022, hemen eskuragarri: <https://data.europa.eu/doi/10.2811/25847>.

²⁸ *Idem*

²⁹ Ikusi GERARDS, J., XENIDIS, R., *Algorithmic discrimination in Europe Challenges and opportunities for gender equality and non-discrimination law*, Europar Batasunaren Argitalpen Bulegoa, Luxenburgo, 2021. Txostenean, azpimarratu egiten da adimen artifizialak arriskuak sortzen dituela diskriminazioaren aurkako eta tratu-berdintasunaren aldeko borrokan, eta diskriminazio-modalitate hori detektatu eta zuzentzeko jardura onak proposatzen dira, baita legezko neurriak eta irtenbide teknikoak ere, algoritmoen diskriminazioaren arazoari aurre egiteko. Eskuragarri hemen: <https://data.europa.eu/doi/10.2838/544956>.



ferentziatzeko esparru gisa: Adimen Artifizialaren Estrategia Nazionala³⁰, Eskubide Digitalen Gutuna³¹ eta adimen artifizialaren inguruko egitasmo europarrak³².

Amaitzeko, Euskadiko administrazio publikoek ahalegina egin beharko lukete enpresek algoritmoak programatu, erabili eta merkaturatzean aintzat hartu beharko lituzketen jarraibideak eta jokabide-kodeak emateko eta jarraibideok aldizka berrikusteko, balitekeelako berdintasunaren eta diskriminazio ezaren printzipioa ez betetzea.

VII.8. BERDINTASUNARI BURUZKO DATUAK BILTzea ETA AZTERLANAK EGITEA; PRESTAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA

25. Datuak banakatuta biltzea, giza eskubideen ikuspegiarekin. Politika publikoak diseinatzeko azterlanak egitea.

Europako eta nazioarteko erakundeak bat datoz esatean datu banakatuak falta direla ondo oinarritutako politika publikoak egiteko.

Arauetan, algoritmoetan, jarreretan, jokabideetan edo politika publikoetan diskriminazio-patroiak detektatzen dira, eta, beraz, iturri desberdinetatik bildu behar dira datuak, definizio eta kategoria estatistiko koherenteak sustatzearekin batera. Hala ere, administrazio-ebazpenen eta epai judizialen ondoriozko kasuistika aztertu behar da, eta azterlan zorrotzak egin. Era berean, datuak eskuratuta, prozedura administratibo eta judizialean zeharkako diskriminazioa dagoela adierazteko behar den informazioa eduki dezakegu. Azterlanak, estatistikak eta memoriak interes publikoko parametroetatik abiatuta egiteko betebeharrak esparru juridiko egokia eduki beharko luke, baita garapen-araudia ere.

³⁰ EKONOMIA-GAIEN ETA TRANSFORMAZIO DIGITALAREN MINISTERIOA, *Estrategia Nacional de Inteligencia Artificial*, 1.0 bertsioa, hemen eskuragarri: <https://portal.mineco.gob.es/es-es/ministerio/areas-prioritarias/Paginas/inteligencia-artificial.aspx>.

³¹ Gutunean, ingurune digitaletan berdintasunez tratatzeko, diskriminaziorik ez jasateko eta ez baztertzeko eskubidea aitortzen da, baita algoritmoak erabiltzen diren erabakietan eta prozesuetan ez diskriminatzea bermatzeko eskubidea ere. ESPAINIAKO GOBERNUA, *Carta de derechos digitales*, hemen eskuragarri: https://www.lamoncloa.gob.es/presidente/actividades/Documents/2021/140721-Carta_Derechos_Digitales_RedEs.pdf.

³² 2020ko otsailaren 19an, Europako Batzordeak *Libro Blanco sobre la inteligencia artificial*, op. cit. argitaratu zuen, bikaintasunera eta konfiantzara begirako ikuspegi europar bat, lege-proposamen baterako bidea markatzen duena.



EAEn, gero eta azterlan eta txosten gehiago egiten dira tratu-berdintasunari, diskriminazioari eta gorroto-gertakariei buruz, gure azterlanean esan dugun bezala; alabaina, giza eskubideen ikuspegian oinarritutako datu banakatuak behar dira oraindik ere. Tratu-berdintasunari buruzko azterlanak eginez gero, nazioarteko estandarrak errespetatuta, hobeto ezagutuko ditugu diskriminazioaren kausak, hedadura, bilakaera, izaera eta ondorioak.

Intimitaterako eskubidea eta datuen babeserako eskubidea babesteko araudia ere datu-bilketarako zailtasunen oinarrian dago. Dena dela, araudiak baldintza batzuk ezartzen ditu, datu pertsonal garrantzitsuen bilketa eta prozesaketa baimentzeko, eta, kasu batzuetan (adibidez, desgaitasunari edo adinari buruzko datu-bilketan), ez dago lege-eragozpenik. Zentzu horretan, "berdintasunari buruzko datuen"³³ bilketak ordenamendu juridikoa bete behar du; zehazki, datuen babesari eta giza eskubideei buruzko araudia.

26. Eragile publiko eta sozialak eta herritarrak oro har giza eskubideen nazioarteko zuzenbidean prestatzea eta arrazakeriaren eta diskriminazioaren kausen eta ondorioen inguruan sentsibilizatzea.

Diskriminazioaren aurkako edozein politikatan, ezinbesteko helburua da eragile publiko eta pribatuak prestatzea. Diskriminazioari buruzko prestakuntzaren premiak jardun publikoari eta enpresei eragiten die. FRAK eta beste erakunde batzuek (hala nola, Europar Batasunaren Polizia Prestatzeko Agentziak (CEPOL))³⁴, prestakuntza-baliabide eta -tresna ugari garatu dituzte. EAEn, Ikuspegik eta Biltzenek materialak lortzen, biltzarrak antolatzen eta prestakuntza ematen lagundu dute, diskriminazioaren jatorria, irismena eta babes-esparrua ezagutzera emateko.

³³ Timo Makkonen-ek egindako *European handbook on equality data 2016 revision* eskuliburutik hartu dugu berdintasun-datuen definizioa. Datuok informazio-elementutzat jotzen dira, eta berdintasun materialaren egoera deskribatu eta aztertzeke balio dute. Informazioa, jatorrian, kuantitatiboa edo kualitatiboa izan daiteke. Desberdinkeriak edo desberdinkerien arrazoiak edo desberdinkeriek gizartean dituzten ondorioak islatzen dituen informazio erantsia izan dezake. Diskriminazio ezari, berdintasunari eta aniztasunari buruzko goi-mailako taldera atxikitako berdintasun-datuen azpitaldeak definizio berbera proposatzen du; informazio gehiago izateko, ikusi: <https://fra.europa.eu/en/project/2019/subgroup-equality-data>.

³⁴ EBren agentzia bat da, eta Europako eta nazioarteko poliziaren lankidetzaren sustatzen du, prestakuntzaren bidez. Informazio gehiago izateko, kontsultatu bere web-orria: <https://www.cepol.europa.eu/es>.



Garrantzitsua da prestakuntza hori justizia-administrazioa, polizia³⁵, biktimei laguntzeko zerbitzuetara eta orientazio eta aholkularitza juridikoko zerbitzuetara (abokatuen elkargoetako ofiziozko txandetara eta abarretara) hedatzea. 15/2022 Legeak berariaz jasotzen du prestakuntza espezializatua eman behar zaiela Fiskaltzako kideei, babestu beharreko kolektiboetarako dagokienez.

Halaber, administrazio publikoetako sektoreetara, espetxeetako langileengana, gizarte-zerbitzuetara, osasun-langileengana, hezkuntzako langileengana eta, oro har, funtzio publikora iritsi beharko litzateke. Bestetik, prestakuntza espezifikoak prestatu beharko lirateke gizarte-eragileentzat eta komunikabideetako langileentzat.

Berdintasun-arloko prestakuntza funtsezkoa da kalitateko arreta eskaini ahal izateko, eta faktore giltzarria da dauden aurreiritziak eraisteko gai den pentsamendu kritikoa sustatzeko.

Giza eskubideei eta diskriminaziorik ezari buruzko prestakuntza-programak indartu eta zabaldu behar dira, baita babes- eta erreparazio-neurriei buruzko kontuak ere, bat etorrira indarreko lege-esparru berriarekin.

27. Herritarrak iruditeria diskriminatzaileak erreproduzitzearen inguruan sentsibilizatzea

Ezinbestekoa da jarrera aktiboa sustatzea komunikabideetan eta sare sozialetan kolektibo jakin batzuei buruz dabilen informazioaren aurrean. Horretarako, iruditeria diskriminatzaileak erreproduzitzen dituzten mekanismoak zein diren aztertu beharko litzateke, eta kolektibo diskriminatuen kontrako aurreiritzirik gabeko pentsamendua bultzatu.

Eremu honetan, oso interesgarriak dira Euskadiko udalerrri askotan abiatu diren zurrumurruren aurkako esperientziak, baita mezuetan eta informazioetan aurreiritziak eta estereotipoak indargabetzeko garatu den sarea ere.

Berdintasunarekin eta diskriminazioaren aurkako borrokarekin lotura daukaten oroitzen-egunak ospatzea mekanismo baliagarria izan daiteke jokabide diskriminatzaileak justifikatzen dituzten diskurtso iraingarriak desagerrarazteko.

³⁵ Gorroto Delituen aurka Borrokatzeko 2022-2024ko II. Ekintza Planak, 5. ekintza-lerroan, segurtasun-indarretako eta -kidegoetako kideak gorroto-delituen kontrako borrokan prestatu, sentsibilizatu eta kontzientziatu behar direla esaten du. BARNE-MINISTERIOKO SEGURTASUNEN ESTATU-IDAIZKARITZA, *II Plan de acción de lucha contra los delitos de odio 2022-2024*, op. cit.



Halaber, helburu honetan, garrantzitsua da herritarrei jakinaraztea zein den gorrotoan eta diskriminazioan oinarritutako delitu eta arau-hausteei ezar dakiekeen esparru juridikoa baita zein diren arau-hausteei eta zehapenei dagokienez ezartzen diren xedapenak ere; batez ere, 15/2022 Legea onetsi ondoren edo, hala badagokio, etorkizuneko euskal araudia onetsi ondoren.

Berez, benetan interesgarria da administrazio publikoek, beren kabuz edo, bestela, historikoki diskriminatu izan diren kolektiboen eskubideen aldeko antolakunde sozialekin lankidetzan, kolektibo jakin batzuei eragiten dien eta aurreiritzien nahiz estigmen iturri den informazio partzial eta zehaztugabeari aurre egiteko ahaleginan jarraitzea eta ahaleginak areagotzea.

GOMENDIOAK

Gomendio hauek emateko, oso kontuan hartu dugu Tratu Berdintasunerako eta Diskriminaziorik Ezerako uztailaren 12ko 15/2022 Lege Integrala: azterlan hau egin bitartean onetsi dute, eta betebeharrak ezartzen dizkie botere publikoei. Bestetik, nazioarteko erakundeen txostenak eta gomendioak izan ditugu kontuan, batez ere nazioartean aitortu eta garatu direlako berdintasunerako eskubidea –oinarrizko giza eskubide gisa– eta diskriminazioaren aurkako borroka.

Azterlanean adierazi moduan, helburua ez da emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatu eta bermatzeari begirako politika publikoei buruzko proposamenak egitea, Euskadiko politika publikoetan ibilbide luzea egina duten legedi eta garapen propioak baitaizkate.

Aurreko ondorioetatik, labur, honako **gomendio** hauek atera ditzakegu:

1. Euskadin lege integral bat egin eta onestea tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko arloan.

Gure ustez, aurrera egin behar dugu esparru juridiko propio bat egiteko orduan, aurreikusi moduan. Hala, esparru juridiko horrek helburu izan behar du tratu-berdintasunerako eskubidea eta diskriminazioaren debekua oro har eta zeharka bermatzea, legediari eta araudi sektorialari koherentzia juridikoa ematea edota diskriminazioaren aurkako neurriak nahiz ekintza positibokoak hartzeko esparru zehatz bat sortzea. Esparru juridiko horrek, bereziki, honako gai hauek arautu behar ditu: biktimen babesa eta erreparazioa, plangintza estrategikoa eta diskriminazioaren



kontrako neurriak sustatzeko eta neurrian eraginkortasuna bermatzeko behar diren egiturak.

2. Araudi sektoriala egin eta egokitzea.

Tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko eskubidea bermatze aldera goragoko estandarrak txertatzeak berekin dakar araudi sektoriala egitea eta diskriminazioaren aurkako arloan zorrotzenak diren postulatuetara egokitzea, oraingo araudia ebaluatu eta berrikusiz eta, hala badagokio, araudi berria eginez, diskriminazioaren aurkako neurriak eta ekintza positibokoak edo bestelakoak hartzeko eta biktimak babestu eta erreparatzeko.

3. Hausnartu egin behar dugu EAEn aukerarik dagoen diskriminazioaren aurkako arloan berdintasunerako erakunde independente eta egoki hornitu bat sortzeko.

Erakundeetan eta gizartean tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza sustatzeko, diskriminazioaren aurkako arloan eginkizunak izango dituen erakunde espezializatu eta independente bat sortu behar da, eta abian jarri. Hautatzen den ereduaren araberakoak izango dira erakundearen izaera eta irismena.

4. Maila anitzeko koordinazioa hobetzea Estatutako Administrazio Orokorrekin eta Euskadiko administrazio publikoen artean.

Hainbat erakunde-mailari dagokie diskriminazioaren kontra borrokatzea eta tratu-berdintasuna sustatzea; hortaz, hori lortzeko, funtsezkoa da administrazio publiko guztien artean lankidetzeta eta koordinazioa egotea.

5. Diskriminazioaren aurkako borroka erdigunean edukiko duten eta jarraipena nahiz ebaluazioa egiteko adierazleak aurreikusiko dituzten plangintza-tresnak eta estrategiak egitea.

Administrazio-plangintzak neurriak hartu behar ditu, ordenamendu juridikoan debekatzen den edozein arrazoitan oinarritutako diskriminazio-era oro prebenitu, desagerrarazi eta zuzentzeko. Arlo honetan, proposamen posible ugari daude, baina giza eskubideen ikuspegia eduki behar dute, eta sektore publikoari nahiz pribatuari



aplikatzeko modukoak izan. Bestetik, ekintza positiboko neurriak hartzeko tarte handia dago; bereziki, poliziaren identifikazioari, informazioaren tratamenduari eta kolektibo zaurgarrien aurkako gertakari arrazisten eta gorroto-gertakarien kontrako borrokari dagokienez. Era berean, lehentasunezkoa da hezkuntzari buruzko araudi-an jasotzen diren neurriak (eskola inklusiboa lortzeari, emaitza akademikoak hobetzeari eta eskola-segregazioaren aurka borrokatzeari buruzkoak) eta etxebizitza duin eta egokia eskuratzeko aurreikusita dauden legezko neurriak benetan aplikatzea.

6. Antolakunde sozialek eta diskriminazioaren xede diren kolektiboek kontsulta-organoetan parte har dezaten sustatzea.

Tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko eskubidea bermatzea helburu duten neurriak formulatu, aplikatu eta ebaluatzeko, ezinbestekoa da diskriminatzen diren kolektiboek parte hartzea. Horretarako, prozedurazko bideak ezarri behar dira, kolektibo horiek kontsulta-organoetan benetan eragitea ziurtatzeko.

7. Gorroto-diskurtsoari aurre egiteko jarduketak garatzea.

Gorroto-diskurtsoak jokabide diskriminatzaileak eta diskriminazio sistemikoa elikatzen dituzenez, askotariko proposamenak hartu behar dira kontuan; batez ere, zigor-arloan eraginik ez edukitzeagatik gutxien garatu direnak (hala nola, Euskadiren egoerara eta testuingurura egokitutako tresna, protokolo edo estrategia bat).

8. Jarduketa diskriminatzaileen edo arrazisten biktima errealei eta potentzialei informazioa, aholkua eta bidelaguntza ematea.

Diskriminazioaren kontrako araudiari eta berorren aplikazioari buruzko informazioari, aholkularitzari eta bidelaguntzari buruzko eskubidea bermatzeko, azterlan bat egin behar da, dauden informazio- eta aholkularitza-baliabideei eta baliabideok eskaintzen dituzten prestazioei buruzko mapa bat edukitzeko.

Bestalde, berdintasunerako erakunde bat sortzeko aukera ebaluatu behar da, edo Euskadiko administrazio publikoetan dauden zerbitzuak, antolakunde sozialak eta abokatuen elkargoen orientazio juridikoko zerbitzuak edota biktimei arreta emateko zerbitzuak indartu.



9. Jarduketa eta jokaera diskriminatzaileak prebenitu, babestu eta erreparatzeko neurriak ezatzea, administrazioko erreklamazioa edo organo judizialen aurreko salaketa osatzeko.

Gure eustean, biktima potentzialak eta gertakari diskriminatzaile edo arrazistaren bat jasan duten biktimak prebenitu eta babesteko bide berriak esploratzea. Proposamenen artean, zerbitzu publikoak barne-mailan gainbegiratzeko neurriak, prebentzio-neurriak, ekintza positiboko neurriak eta aniztasunaren kudeaketarekin lotutakoak daude; adibidez, kulturarteko harmonizazioko praktikak.

Erreparazioa gatazkak konpontzeko bide judizialaz bestelako mekanismoen bidez gauzatu daiteke; adibidez, bitartekaritzaren eta kontziliazioaren bidez. Oso interesgarria da lehengoratzeko-ikuspegia baloratzea.

10. Erabakiak hartzeko mekanismo automatizatuetan bermeak ematea.

Araudi bat egin behar da, diskriminazio-joerarik egon ez dadin kontrol-neurri egokiak hartzea aurreikusiko duena. Halaber, adimen artifizialeko sistemen ondorioak sistematikoki ebaluatu eta monitorizatu behar dira, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloko arriskuak identifikatu eta arintzeko. Azken horrek, beste neurri batzuen artean, gardentasuna eskatzen du aplikazio informatikoen diseinuan eta erabileran.

Euskadiko administrazio publikoek ahalegina egin beharko lukete enpresek algoritmoak programatu, erabili eta merkaturatzean aintzat hartu beharko lituzketen jarraibideak eta jokabide-kodeak emateko eta jarraibideok aldizka berrikusteko, bali-tekeelako tratu-berdintasunerako eta diskriminazio ezerako eskubidea betetzea.

11. Politika publikoak diseinatzeko azterlanak egitea eta berdintasunari buruzko datu banakatuak biltzea, giza eskubideen eta diskriminaziorik ezaren ikuspegia bilduz.

Ezinbestekoa da arloko azterlanak, estatistikak, memoriak eta diagnostikoak egitea, praktika diskriminatzaileen atzeko mekanismoak eta kausak detektatzeko, diskriminazioa jasaten duten kolektiboek nozitzen duten diskriminazioari buruz duten pertzepzioa ezagutzeko eta iritzi publikoan eta mediatikoan iruditeria arrazistak nola erreproduzitzen diren jakiteko.



Arauetan, algoritmoetan, jarreretan edo jokabideetan, egitura sozialean edo politika publikoetan diskriminazio-patroiak detektatzeko, berdintasunari buruzko datuak bildu behar dira, berme nahikoekin bildu ere, eta iturri desberdinetan eta estatistika-definizio eta -kategoria koherenteetan oinarritu. Era berean, interesgarria litzateke eskubideen benetako erabilerari edo krisiek talde zaugarri diskriminatuetan duten inpaktuari buruzko azterlan zorrotza egitea, hobekuntzak eta jardun-ildo berriak ahalbidetzeko. Administrazio publikoek eta eremu judizialek datuak biltzeko eta, era berean, estatistikak interes publikoko parametroetatik eta gardentasunetik egiteko, arau-esparru egokia behar da.

12. Giza eskubideen eta diskriminaziorik ezaren arloan prestatzeko programak indartu eta hedatzea

Tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloko prestakuntza indartu behar zaie operadore juridikoei eta administrazio publikoetako sektore guztiei, segurtasun-indar eta kidegoei, espetxeetako langileei, gizarte-zerbitzuei, osasun-langileei eta, oro har, funtzio publikoari. Halaber, prestazio espezifikoak aurreikusi beharko lirarteke eragile sozialentzat eta komunikabideetarako, hezkuntza-maila askotan (formaletan eta informaletan) eta zerbitzu publikoetan funtzio publikora sartzeko opozizioetan. Baita herritarrei oro har bideratutako zerbitzuetan ere.

Prestakuntzak barruan bildu behar ditu giza eskubideen nazioarteko estandarrak, diskriminazioaren kudeaketa eta diskriminaziorik eza, aplikatzekoa den esparru juridikoari garrantzi berezia emanez.

13. Iruditeria diskriminatzaileak erreproduzitzearen ondorioen inguruan sentsibilizatzea Euskadiko herritarrek.

Administrazio publikoek, beren kabuz edo historikoki diskriminatu izan diren kolektiboen eskubideen aldeko antolakunde sozialekin lankidetzan, areagotu egin behar dituzte kolektibo jakin batzuei eragiten dien eta aurreiritzien nahiz estigmen iturri den informazio banakatu, partzial eta argi eta garbi zehaztugabeari aurre egiteko ahaleginak.

ararteko

Herriaren Defendatzailea
Defensoría del Pueblo

Arreta zuzeneko bulegoak

Araban

Prado, 9 • 01005 Vitoria - Gasteiz
Tel.: 945 13 51 18 • Fax: 945 13 51 02

Bizkaian

Albia Eraikuntza. San Vicente, 8- 8. solairua
48001 Bilbao
Tel.: 944 23 44 09

Gipuzkoan

Arrasate 19, 1.a
20005 Donostia/San Sebastián
Tel.: 943 42 08 88

